

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4048

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2021eko urriaren 8ko Ebazpena, hirugarren herrialdeetako merkatuetan ardoak sustatzeko laguntza-neurriei heltzeko aurkeztutako eskabideak ebazten dituen (Nekazaritzaren Europako Berme Funtsaren 2022 ekitaldia).

2021eko urriaren 8an, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean aurkeztutako eskabideak ebatzi zituen, hirugarren herrialdeetako merkatuetan ardoak sustatzeko neurriei heltzeko eskabideak.

Eskabide horiei Batzordearen 2016ko apirilaren 15eko 2016/1150 (EB) Betearazpen Erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko zaie; bertan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dira, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko programa nazionalak dagokienez, zehazki, Espainiako mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko programako neurriak aplikatzeko.

FEAGA 2020 ekitaldi horretan soberan dauden eta erabilgarri dauden funtsak banatzeko mekanismoa aplikatuta, zeina Programen finantza- zuzkidura hobetzeko azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren 11.4 artikuluan ezartzen baita, Programak Hautatzeko Batzorde Nazionalak, 2022ko maiatzaren 23ko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko programetarako zuzkidura handitzea onartu zuen, % 50eraino handitzea Nekazaritza eta Landa Garapenari buruzko 2021eko maiatzaren 20ko Konferentzia Sektorialean ehuneko hori lortu ez zuten programetarako FEAGA laguntza.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2021eko urriaren 8ko Ebazpenean, laguntza-ren % 43,51 eman zitzaion proiektu guztiei.

Horregatik guztiagatik, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2021eko urriaren 8ko Ebazpenaren eranskina aldatu behar da eta proiektu guztiei laguntza % 50era handitu.

EBATZI DUT:

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2021eko urriaren 8ko ebazpena aldatzea, laguntzaren intentsitatea % 50eraino igotzen duena.

Ebazpen honetako eranskinean dago jasota aldaketa.

2.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2021eko urriaren 8ko Ebazpenaren gaine-rako xedapenei eustea.

3.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 19a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2022ko irailaren 19a, astelehena

ERANSKINA

NEKAZARITZA BERMATZEKO EUROPAKO FUNTS KOMUNITARIOAREN KONTURA AINTZATETSITAKO LAGUNTZAK

Programa zk.	Espediente zk.	Izen soziala	IFK/NAN	2021-2022 Programaren Aurrekontua (euro)	2022 NBBEF Laguntza (euro)
1	00019-PRO2021-13	Bodegas Bhilar S.L.	B01511385	47.782,05	23.891,03
2	00024-PRO2021-13	Errekalde Txakolina S.L.	B20909214	18.611,22	9.305,61
3	00012-PRO2021-13	Bodegas Ramirez de Ganuza S.L.U.	B20303103	90.155,93	45.077,97
4	00017-PRO2021-13	Pernod Ricard Winemakers Spain S.A.U.	A11606118	1.806.349,52	903.174,76
5	00003-PRO2021-13	Bodegas Casa Primicia S.A.	A01032564	83.217,64	41.608,82
6	00021-PRO2021-13	Bodegas Heredad de Aduna S.L.	B01282698	17.160,00	8.580,00
7	00008-PRO2021-13	Cia Vinicola del Norte de España S.A.	A48002893	3.913.847,73	1.956.923,87
8	00014-PRO2021-13	Bodegas Eguren S.A.	A01016930	115.830,00	57.915,00
9	00026-PRO2021-13	Bodegas Valdemar S.A.	A01015494	169.381,81	84.690,91
10	00022-PRO2021-13	Bodegas Faustino S.L.	B01235308	4.594.712,00	2.297.356,00
11	00001-PRO2021-13	Familia Martinez Bujanda S.L.	B01486778	95.091,75	47.545,88
12	00018-PRO2021-13	Bodegas Larchago S.A.	A78968237	97.835,40	48.917,70
13	00010-PRO2021-13	Bodegas Fernandez de Pierola S.L.	B01241405	42.160,95	21.080,48
14	00028-PRO2021-13	Granja Nuestra Señora de Remelluri S.A.	A20106258	10.857,60	5.428,80
15	00015-PRO2021-13	Bodegas Medrano Irazu S.L.	B01420462	41.224,23	20.612,12
16	00007-PRO2021-13	Finca Villacreces S.L.	B01368729	60.231,60	30.115,80
17	00005-PRO2021-13	Bodegas Vetus S.L.	B01387216	18.387,20	9.193,60
18	00006-PRO2021-13	Bodegas Izadi S.A.	A01036870	313.033,50	156.516,75
19	00027-PRO2021-13	Compañía de vinos Telmo Rodriguez S.L.	B01172261	66.005,55	33.002,78
20	00004-PRO2021-13	El Coto de Rioja S.A.	A01129378	328.302,00	164.151,00
21	00009-PRO2021-13	Roger Goulart, S.A.	A08409336	492.570,00	246.285,00
22	00013-PRO2021-13	Bodegas Campillo S.L.	B01040476	155.610,00	77.805,00
23	00025-PRO2021-13	Bodegas de los Herederos del Marques de Riscal, S.L. unipersonal	B01414531	1.439.772,00	719.886,00

2022ko irailaren 19a, astelehena

Programa zk.	Espediente zk.	Izen soziala	IFK/NAN	2021-2022 Programaren Aurrekontua (euro)	2022 NBBEF Laguntza (euro)
24	00011-PRO2021-13	Bodegas Murua S.A.	A01009778	29.228,00	14.614,00
25	00016-PRO2021-13	Muriel Wines Sociedad Limitada	B64143506	936.000,00	468.000,00
26	00023-PRO2021-13	Spanish Fine Wines S.L.	B01323203	1.203.520,16	601.760,08
27	00020-PRO2021-13	Araex Rioja Alavesa S.L.	B01385061	1.035.507,81	517.753,91